

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 18koa, 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onartzen da aldatzea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testuategina, irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia**

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko urtarrilaren 18an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 18koa, 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, zeinaren bidez onartzen da aldatzea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testuategina, irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onartzen da aldatzea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testuategina, irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Aipaturiko 8. artikuluko 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikuluko arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da abenduaren 27ko 12/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren bidez onartzen da aldatzea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testuategina, irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 18a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**